



Getxo

bizi ezazu

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA

160 bat pertsona izan dira Getxo Lagunkoia proiektuaren aurkezpenean Faduran

160 bat pertsona, tartean pertsona nagusiak, udaleko talde politikoetako zinegotziak, teknikariak eta beste erakunde batzuetako ordezkariak, izan dira gaur goizean Fadura kiroldegian izan den Getxo Lagunkoia proiektuaren aurkezpenean. Imanol Landa Alkateak eskerrak eman dizkie guztioi eta azaldu du Getxo Lagunkoia proiektu bizia dela, epe luzekoa, bukaerarik gabekoa, hiri-ingurune integratzaile eta irisgarria lortu nahi duena, zahartze aktiboa sustatuz. Alkateak gogoratu du Getxok gaur egun 80.000 biztanle inguru dituela, eta horietatik % 31k 60 urte baino gehiago dituztela (14.094 emakume eta 10.413 gizon). *"Denbora daramagu ildo horretan lan egiten, gure espazioak, gure zerbitzuak, gure proposamenak diseinatzen ditugunean hain zuzen ere. Nagusien elkartean lana babesten dugu; oinez egiteko topaketak sustatzen ditugu, hainbat gairi buruzko tailerrak antolatzen ditugu, eta udalerrian eskuragarri dauden baliabideei buruzko liburuxka bat argitaratu dugu".* Alkateak gogoratu du hau lehendabiziko aldiz Legegintzaldiko Planean gauzatzera konprometitu diren 49 gertaera enblematikoen barne dagoela eta gehitu du *"gehiago egin nahi dugu, aurrera egiten jarraitu nahi dugu, eta horretarako, prozesu parte-hartzaile bat jarriko dugu gaur martxan, eta ezinbestekoa da bertan parte hartu nahi duzuen pertsona nagusi guztien esperientzia izatea. Zuek osatzen duzuen kapital soziala aprobetxatu nahi dugu, eta gainera, bide honetan hasten direnentzat erreferentzia eta laguntza izan nahi dugu, esperientziak eta lana partekatzen dituzten udalerrien sarea eratzearekin batera, Bizkaia eta Euskadi, adin guztietako jendearentzat lurralde lagunkoia izan dadir".* Azkenik, Alkateak gogoratu du Getxo Lagunkoia hiria eraikitzeko proiektua dela, eta horretarako beharrezkoa dela udalaren zeharkako ikuspegia, hau da, udaleko arlo eta agente ezberdinen parte-hartzea duena". *"Guztioi interesatzen zaigun kontua da, ezin baitugu ahaztu pertsona nagusiekin lagunkoia den hiria biztanle guztientzat hobea den hiria dela".*

Alkate getxotarraren aurretik, Emilio Sola, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak azaldu du zer den hiri atsegin bat, Getxo Lagunkoia zahartzen ari diren pertsonentzat bizitza errazten duten inguruak sustatzean datzala eta martxan abiatutako hainbat ekimen ere aipatu ditu, esate baterako, legatua, denbora bankua, nire auzoa.... Bestalde, Isabel Sánchez, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak azaldu du Bizkaian adin guztiontzako hiri lagunkoia sustatzearen garrantzia, horiek lortzeko guztion partaidetza behar dela, eta Getxo zoriendu du esparru horretan egiten ari den lanagatik.

(*) Argazkiak eta soinu korteak eskuratzeko:

OHARRA: Faxe hartzean arazoren bat eduki baduzue edo goian esandako orriak hartu ez badituzue, deitu mesedez telefono honetara: 94 466.03.20

NOTA: Si han tenido algún problema en la recepción del fax o no han recibido el número indicado de páginas, por favor contacten con el teléfono: 94 466.03.20



Getxo

bizi ezazu

<http://www.getxo.eus/prensa>.

Pasa-hitza: fotoscortes

Prentsa Bulegoa: 94 466 03 20.

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis.
Atentamente.